

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2366

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 25ekoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen Arloko errektoreordearena, Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauak argitaratzeko dena.

Hirugarren zikloko doktoregoko ikasketek doktore titulua lortzera bideratzen dute, eta izaera ofiziala eta nazioko lurralde osorako balioa dute.

2011ko otsailaren 10ean, urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretua argitaratu zen, doktorego ikasketa ofizialak arautzeko dena. Ikasketa horien helburua da jakintza gizartearen ongizatera bideratzen lider izan eta horretan lagundu behar dutenak prestatzea. Errege Dekretu honek doktoregoaren egitura eta antolamendua jasotzen ditu, baita ere, lortu beharreko gaitasunak, sartzeko baldintzak eta ikerketa karreraren garapena haren hasierako etapan, ikerketarako prestakuntzaren ikuskapen eta tutoretzaren rol garrantzitsua, komunikazio eta sormena ikerketa giro batean sustatuko dituen prestakuntzaren txertaketa, horrelako ikasketetan ezinbestekoak diren internazionalizazioa eta mugikortasuna, eta kalitatearen ebaluazioa eta egiaztapena nazioartean aitortpena jaso eta erakargarria izateko erreferentzia gisa.

99/2011 Errege Dekretuak ekarri zituen aldaketak direla eta, doktoregoko ikasketak antolatu, doktorego tesiak prestatu, ikuskatu, aurkeztu eta defendatzerakoan, unibertsitateak barne arautegia egokitu beharra izan zuen doktoregoko ikasketak kudeatze aldera, haren estatutuek zehazten duten moduan, bai eta doktorego programak proposatzeko indarrean dagoen arautegia ere.

Beraz, arautegi honen bidez doktoregoko ikasketak kudeatzeko prozedura emango zaio UPV/EHUri, ikasleak doktorego programan onartuak izan eta matrikulatzen direnetik hasita, harik eta doktorego tesia egin eta defendatu arte. Arautegi honek, dena den, ez die traba egingo doktoregoko ikasketei buruzko lehenagoko arautegietatik datozen beste araubide batzuei.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauak ezartzea erabaki zuen 2015eko martxoaren 25eko bileran.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Herriko Unibertsitate Sistemarenak, honela dio 10.2 artikuluan: «Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gainekok aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira»

Aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau

2015eko maiatzaren 29a, ostirala

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arautegia, eranskinean jasotako modua.

Leioa, 2015eko martxoaren 25a.

Errektorea.

Eskuordetzeaz (2013-05-30 ebazpena, 2013-02-13 EHAA).

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen Arloko errektoreordea,
NEKANE BALLUERKA LASA.

DOKTOREGO IKASKETAK KUDEATZEKO ARAUTEGIA

I. KAPITULUA

DOKTOREGO PROGRAMAK

1. artikulua.– Doktorego programak.

1.– Doktorego programa deritzo doktore titulua eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak lortzera bideratutako jardueren multzoari. Doktorego programa horrek doktoregaiaren prestakuntzarako alderdiak garatzea izango du helburu eta doktorego tesiak garatzeko ikerketarako prozedurak eta ildoak ezarriko ditu.

2.– Doktorego programak UPV/EHUK bakarrik edo zenbait unibertsitatek elkarrekin antola ditza-kete eta I+G+Bko jarduerak egiten dituzten nazioko edo atzerriko arlo publiko edo pribatuko beste erakunde eta zentrozen laguntza izan dezakete, hitzarmen bidez adierazia.

3.– Doktorego ikasketak amaituko dira ikerketaren emaitza orijinalak jasotzen dituen doktorego tesi bat egin, defendatu eta onartzen denean.

II. KAPITULUA

PROGRAMAN SARTZEA, ONARTZEA ETA MATRIKULATZEA

2. artikulua.– Sartzeko baldintzak.

1.– Oro har, doktorego programa ofizial batean sartzeko, beharrezkoa izango da Estatuko gradu-titulu bat, edo baliokidea, eta unibertsitate masterreko titulu bat izatea.

2.– Programan sar daitezke, baita ere, kasu hauetako batean daudenek:

2.1.– Estatuko unibertsitate titulu ofizial bat izatea, edo Europako Unibertsitate Eremuko beste herri batekoa, baldin eta, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. artikulua ezarritakoarekin bat eto-rrita, masterrean parte hartzeko gaitzen badu. Eta gaindituak izatea, gutxienez, 300 kreditu ECTS, unibertsitate titulu ofizial guztiak kontuan hartuta, eta horietatik 60, gutxienez, master mailakoak izatea.

2.2.– Estatuko gradudun titulu ofizial bat izatea, eta haren iraupena, zuzenbide komunitarioko arauak betez, 300 kreditu ECTSkoa izatea, gutxienez. Tituludun horiek nahitaez egin beharko dituzte doktorego programak ezartzen dituen prestakuntza osagarri espezifikoak, salbu eta duten gradu-tituluaren ikasketa planak barnean baditu ikerketako prestakuntzarako kredituak, masterreko ikasketetatik datozen ikerketa kredituen baliokideak direnak hezkuntza balioari dagokionez.

2.3.– Unibertsitate tituluduna izatea eta osasun prestakuntza espezializatuko plazetarako dago-kion proba sarrerako prestakuntzan plaza lortu ondoren osasun zientzietako espezialitateetako bateko titulu ofiziala lortzeko programa baten bi urteko prestakuntza, gutxienez, ebaluazio positi-boaz gainditu izana.

2.4.– Titulu bat izatea atzerriko hezkuntza sistemen arabera, homologatu beharrik izan gabe, eta unibertsitateak aurrez frogaturik titulu horrek estatuko unibertsitate masterreko titulu ofizial baten baliokide den prestakuntza maila egiaztatzen duela eta titulua eman duen herrialdean doktorego ikasketak egiteko aukera ematen duela (hautagaiak dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko du).

Onarpen horrek doktorego ikasketetan parte hartzeko beste ezertarako ez du balioko, hau da, ez du inolaz ere esan nahiko interesdunak lehenagotik duen titulua homologatzen denik, ezta beste ondorio batzuetarako aitortzen zaionik ere.

2.5.– Lizentziadun, arkitekto edo ingeniaria izatea eta Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu izana, apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuan jasotakoarekin bat etorrira, edo urtarrilaren 23ko 185/1985 Errege Dekretuaren ikerkuntzako gaitasuna lortu izana.

2.6.– Estatuko beste doktore titulu bat izatea lehenagoko bestelako unibertsitate antolamenduen arabera.

Horrez gain, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak hala dagokionean ezar ditzakeen prozeduren bitartez ere sartu ahal izango da doktorego programetara.

3. artikulua.– Onartua izateko irizpideak.

1.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoak doktoregaiak hautatu eta onartzeko beste baldintza osagarri batzuk ezar ditzake, honako alderdi hauek jaso ditzaketanak, besteak beste: gai espezifiko bat edo gehiago nahitaez aldi berean egingo izatea edo egitea, edo mailako probak edo elkarrizketa pertsonal bat gainditzea.

2.– Eska litezke, doktorego programetan onartua izateko, prestakuntza osagarri bereziak ere, master ofizialen eskaintzatik proposatuko direnak. Prestakuntza osagarri berezi horiek doktoregoko lehenengo bi urteetan egingo dira eta ikasteko bekak eta laguntzak emateari begira, doktorego mailako prestakuntzatzat hartuko dira; prezio publikoei dagokienez, aldiz, master ofizialaren mailako prestakuntza ikastarotzat hartuko dira.

3.– Lehen paragrafoak aipagai dituen onartua izateko baldintzak eta irizpideak, eta bigarren paragrafoak aipagai dituen prestakuntza osagarrien diseinua, doktorego programan ezarriko dira, doktorego programak proposatzeko egun indarrean dagoen arautegiaren arabera.

4.– Doktorego programa bakoitzak onartua izateko ezartzen dituen sistemek eta prozedurek jaso egin beharko dituzte, ezgaitasuna dela-eta hezkuntza premia bereziak dituzten doktoregaien kasuan, laguntzeko eta aholkatzeko zerbitzu egokiak. Azken horiek aztertuko dute curriculum egokitzapenik edo bestelako ibilbide edo ikasketarik egin behar den.

Oro har, doktorego programak bermatu egin beharko du doktorego tesia doktorego programan parte hartzen duten ikertaldeetako batean egingo dela.

4. artikulua.– Onartua izateko prozedura.

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarriko du zein izango den ikasturte bakoitzean doktorego programa batean izena emateko epea.

Sartzeko baldintzak betetzen dituzten hautagaiek doktoregoaren Batzorde Akademikoari eskatuko diote, horretarako ezarritako epean, doktorego programan onartzeko.

Behin onarpen eskaera aurkezteko epea bukatutakoan, doktorego programa bakoitzaren Batzorde Akademikoak hautaketa egin eta onartutakoen hasierako zerrenda argitaratuko du izena emateko eskaeran ezarritako epean eta tokietan. Onartutakoei jakinaraziko zaie zein den esleitutako tutorearen izena eta, kasuaren arabera, zein diren hautagai bakoitzak egin behar dituen prestakuntza osagarriak. Europako Unibertsitate Eremukoak ez diren atzerriko herrialdeetako titulazioak dituzten ikasleen kasuan, doktorego programaren Batzorde Akademikoak igorriko du dokumentazioa, behin betiko onarpenerako, UPV/EHUko Graduondoko Batzordearen bitartez.

Zerrendarekin ados ez dauden hautagaiek beren erreklamazioa aurkez diezaiokete doktorego programaren Batzorde Akademikoari 10 egun naturaleko epean. Batzorde Akademikoak erantzun eta ebatziko ditu erreklamazioak horretarako ezartzen duen epean eta onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko. Zerrenda horren kontra ere, interesdunak erreklamazioa aurkez diezaiokie UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari.

Doktorego programan onartua izateko, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolan matrikula egin behar da ezinbestean.

5. artikulua.– Matrikulatzeko prozedura.

Doktoregaitzat joko da doktorego programa batean onartua izan eta bertan matrikulatu dena, lehenago, ezarritako baldintzak egiaztatuta.

Doktorego programa batean onartutako doktoregaiak urtero matrikulatuko dira Master eta Doktorego Eskolan, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen prezio publikoen arabera, eta ikasturte bakoitzerako ezartzen den prozedurarekin bat etorrira.

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarriko du zein izango den ikasturte bakoitzean doktorego programetan matrikulatzeko epea.

Matrikula egiteko, doktoregaiak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1.– Onarpena, doktorego programaren Batzorde Akademikoarena, egin beharreko prestakuntza osagarriak jasoko dituen, halakorik egin behar izanez gero.

2.– Tutorearen izendapena, doktorego programaren Batzorde Akademikoak egina, doktorego programan parte hartzen duten UPV/EHUko irakasleen artetik egina.

3.– Doktorego programan sartzeko aurkeztutako titulua (fotokopia erkatua edo kopia eta jatorrizkoa alderatzeko).

4.– Indarrean dagoen NANaren edo pasaportearen fotokopia.

5.– Argazki bat.

6.– Doktoregaiak aseguru bat izan beharko dute beren ikasketak egiteko. 28 urtetik gorako doktoregaiak aseguru bat kontratatu beharko dute (aukeran, UPV/EHUren Cum Laude poliza eskaintzen da). 28 urtetik beherako doktoregaiak nahitaez ordaindu beharko dute eskola asegurua.

7.– Egoki izanez gero, matrikularen prezio publikoak ez ordaintzeko edo zati bat bakarrik ordaintzeko eskubidea egiaztatzen duten dokumentuak.

Atzerriko unibertsitate batek emandako titulua duten doktoregaiak, aurreko dokumentazioaz gainera, beste dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1.– Titulua Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitate batek eman badu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita badago, erkidegoan ofizialak diren hizkuntzetara edo ingelesera egindako zinpeko itzulpena.

2.– Titulua Europako Unibertsitate Eremukoa ez den unibertsitate batek eman badu eta titulua Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala ez den ez hizkuntza batean idatzita badago, erkidegoan ofizialak diren hizkuntzetara edo ingelesera egindako zinpeko itzulpena. Kasu honetan titulua bide diplomatikoz legeztatuta egon beharko da.

3.– Jatorrizko unibertsitateak emandako egiaztagiria, emandako tituluak doktorego ikasketak egiten jarraitzeko aukera ematen duela jasoko duena. Egiaztagiri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan edo ingelesez idatzita egon beharko da.

Bigarren mailan eta hurrengoetan matrikulatzeko, doktorego programaren Batzorde Akademikoak ebaluatuta egon beharko dira III. kapituluaren aipatzen diren ikerketa plana eta jardueren dokumentu pertsonalizatua, zeina behar bezala beteta egon beharko den.

III. KAPITULUA

DOKTOREGO TESIAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

6. artikulua.– Doktorego prestakuntzaren iraupena.

Doktoregoko ikasketek hiru urteko iraupena izango dute, arduraldi osoan, doktoregaia programan onartzen dutenetik hark doktorego tesia aurkeztu arte.

Aurrekoa gorabehera, eta doktorego programaren Batzorde Akademiko arduradunak aurrez baimenduta, doktoregoko ikasketak egin daitezke arduraldi partzialean. Kasu horretan, ikasketek bost urteko iraupena izango dute, gehienez, doktoregaia programan onartu dutenetik hark doktorego tesia aurkeztu arte.

Behin aipatutako hiru urteko epea igarotakoan, tesia gordailuan uzteko eskaera aurkeztu ezean, doktorego programaren Batzorde Akademikoak urtebetez luza dezake epea, eta, salbuespen gisa, beste urtebete gehiagoz ere luza daiteke, kasuan kasuko doktorego programan zehaztu diren baldintzetan. Arduraldi partzialeko ikasketetan, epea bi urte gehiagoz luza dezake eta, hori ere, salbuespen gisa, urtebete gehiagoz luza daiteke.

Aurreko epea neurtzeari begira, ez dira kontuan hartuko gaixotasun edo haurdunaldiगतिको bajak. Baja horiek Master eta Doktoregoko Eskolak gestionatuko ditu.

Era berean, doktoregaiak aldi baterako baja eska dezake doktorego programan, urtebetez gehienez, eta gero, baja hori urtebete gehiagoz luza daiteke. Eskaera justifikatua doktorego programaren Batzorde Akademiko arduradunari zuzenduko zaio, eta hark doktoregaiak eskatutakoaz erabaki behako du.

99/2011 EDren aurreko doktorego programetako doktoregaiak aukera izango dute doktorego programa berrietara sartzeko eskaera egiteko, Graduondoko Batzordeak horretarako ezarritako prozedurari jarraituta, baldin eta doktorego programa berrian ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, hala dagokionean, aurreko doktorego programan egindako jarduerak onartuko zaizkie.

99/2011 EDren aurreko doktorego programetan matrikulatutako doktoregaiak 2016ko otsailaren 11 izango dute azken eguna doktorego tesia defendatzeko, baldin eta 99/2011 ED indarrean jarri aurretik hasi bazuten programa. Dekretu hori indarrean jarri ostean hasi bazuten, berriz, 2017ko irailaren 30era arte izango dute.

Edonola ere, 99/2011 Errege Dekretuaren aurreko doktorego programak 2016ko otsailaren 11ra arte egongo dira indarrean, doktorego programa horietan izena eman duten doktoregaiak ikasketak buka ditzatela bermatze aldera bakarrik, eta doktoregai berriek ezin izango dute doktorego programa horietan izenik eman. Aipatutako egunetik aurrera unibertsitatearen eskaintza akademikotik kenduko dira eta horien desagerrarazteari ekingo zaio.

7. artikulua.– Doktorego tesia.

Aurreko artikuluan ezarritakoa betez, doktore titulua lortu nahi dutenek, kasuan kasuko doktorego tesia aurkeztu eta onar diezaieten lortu beharko dute.

Doktorego tesia ikerlan orijinal bat izango da, hautagaiak edozein jakintza arlotan metodo zientifikoa erabiliz egindakoa. Doktorego tesiak doktoregaia gaitu behar du I+G+Bren arloko lan autonomorako. Hauek dira, erreferentzia gisa, doktorego tesia egituratuko dutenak: laburpena, sarrera edo aurrekariak, helburuak, hipotesiak, metodologia, emaitzak, eztabaida, bibliografia eta ondorioak.

Aurrekoa beteta, doktorego tesian lan esperimentalen emaitzak aurkeztu eta eztabaidatu ahal izango dira, egindako lanaren ondorio diren argitalpen eta/edo ekarpenak oinarri hartuta. Horretarako, Graduondoko Batzordeak horri buruz ezartzen duen arautegia bete beharko da.

8. artikulua.– Doktorego tesiaren tutore eta zuzendari lana.

Behin doktoregaia doktorego programan onartutakoan, dagokion Batzorde Akademikoak ikerketa esperientzia egiaztatuta duen eta doktorea den tutore bat esleituko dio, doktorego programan parte hartzen duten UPV/EHUko irakasleen artean aukeratuta, eta berak zaindu beharko du doktoregaiaren eta doktorego programaren Batzorde Akademikoaren arteko interakzioa. Esleitu zaion tutorearen sailari behin-behinean atxikita geratuko da doktoregaia, tesiaren zuzendaria izendatu arte. Tutorea prestakuntza eta ikerlana doktorego programaren eta Master eta Doktorego Eskolaren printzipioetara egokitzeko arduraduna da.

Batzorde Akademikoak, doktoregaiari entzun ondoren, doktoregaiaren tutorearen izendapena alda dezake, doktoregoa egiten ari den bitartean edonoiz, baldin eta hori justifikatzen duten arrazoiak badaude.

Doktoregaia matrikulatu eta hurrengo sei hilabeteen barruan, programaren Batzorde Akademiko arduradunak doktorego tesirako zuzendari bat esleituko dio doktoregai bakoitzari, doktorego programako edozein irakasle izan ahalko dena, eta tutorea bera izan liteke edo ez. Doktoregaia doktorego programako ikerketa ildoetako bati eta doktorego tesiaren zuzendariaren sailari atxikiko zaie; halakorik ezean, doktorego programan parte hartzen duten sailatuko bati atxikiko zaio, betiere sailaren oniritzia baldin badu. Tesiaren zuzendaria honakoetan izango da arduradun nagusia: doktoregaiaren prestakuntza eta ikerketa lanak zuzentzen, jarduera horien koherentzia eta egokitasunean, doktorego tesiaren gaiaren arloan izango duen inpaktuan eta berritasunean, plangintza eramaten eta, behar izanez gero, doktoregaiak izena ematen duen beste proiektu eta jardueretara egokitzen. Zuzendaria UPV/EHUkoa ez bada, tutoreak egingo du unibertsitatearekiko lotura lana.

Tesia beste doktore batzuekin batera ere zuzendu daiteke, baldin eta horretarako arrazoi akademikorik badago, esaterako, gaiak hainbat diziplina hartu edo doktorego programak nazioko edo nazioarteko beste unibertsitate batzuekin edo I+G+Bren arloko erakundeekin elkarlanean egin direlako, aurrez Batzorde Akademikoak baimenduta. Baimen hori atzera bota daiteke aurrerago, baldin eta, Batzorde Akademikoaren iritziz, zuzendarikidetzak tesiaren garapenari onik egiten ez badio. Ez da inoiz ere onartuko bi zuzendari baino gehiago izendatzea doktorego tesi bera zuzentzeko.

99/2011 Errege Dekretuak araututako doktorego programetako irakasleez gain, doktorego tesiaren zuzendari edo zuzendarikide izan ahalko dira doktorego programakoak eta/edo UPV/EHUkoak ez diren zentro edo erakundeetako doktoreak, kasuan kasuko doktorego programek ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Zuzendarikidetzan egindako tesiaren kasuan, doktorego programaren

Batzorde Akademikoak erabakiko du irakasle horiek tesia zuzentzen ari diren artean programan sartuko diren ala ez. Doktorego programan sartzen ez badira, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak onartu beharko du doktorego tesia zuzendarikidetzan egitea. Irakaslea zuzendari bakarra bada, doktorego programan sartu beharko da doktorego tesia zuzentzen ari den bitartean.

Irakasle erretiratuek, emerituek eta ohorezko lankideek doktorego tesiak zuzentzen jarraitu eta/edo hasi ahal izango dute, baina, betiere, doktorego programako doktoreren batekin batera.

Doktorego programaren Batzorde Akademikoak, doktoregaiari eta doktorego tesiaren zuzendariari entzun ondoren, doktorego tesiaren zuzendariaren izendapena alda diezaiotse doktoregaiari, doktorego programan dagoen artean edonoiz, baldin eta hori justifikatzen duten arrazoiak badaude.

9. artikulua.– Jardueren dokumentu pertsonalizatua.

Doktorego programan matrikulatu ondoren, doktoregai bakoitzarentzat jardueren dokumentu pertsonalizatua erabiliko da kontrolerako erregistro indibidualizatuari begira. Doktoregaiak bertan jasoko ditu doktoregoa garatzeko interesgarriak diren jarduera guztiak, doktorego programaren Batzorde Akademikoak araututakoaren arabera. Prestakuntzarako jarduerak ez dute nahitaez ECTS kredituetan egituratuta egon beharko eta doktorego programa bakoitzaren eremuko zeharkako prestakuntza zein espezifikoa bildu ahal izango dituzte. Dena dela, doktoregaiaren jarduera funtsezkoena ikerlana izango da.

Jardueren dokumentu pertsonalizatua aldizka ikuskatuko dute tesiaren tutoreak eta zuzendariak eta urtero ebaluatuko doktorego programaren Batzorde Akademiko arduradunak. Ebaluazio positiboa ezinbestekoa izango da doktorego programan jarraitzeko.

10. artikulua.– Konpromiso dokumentua.

Doktorego tesiaren nondik norakoak bilduko dituen konpromiso dokumentu bat izango da. Doktoregaiak, tutoreak, zuzendariak eta doktorego programaren koordinatzaileak sinatuko dute, eta GAUR aplikaziora igoko da. Konpromiso hori lehenbailehen izenpetuko da, programan onartu eta sei hilabete igaro baino lehen. Bertan jasoko dira gorabeherez erabakitzekeko prozedura bat eta konfidentzialtasunari buruzko alderdiak, baita doktorego tesia egin ahala sor daitezkeen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideekin lotutako alderdiak ere.

11. artikulua.– Ikerketa plana.

Matrikularen lehenengo urtea amaitu baino lehen, doktoregaiak ikerketa plan bat prestatuko du, eta plan horrek honako hauek bildu beharko ditu, gutxienez: erabili beharreko metodologia eta lortu nahi diren helburuak, horiek lortzeko baliabideak eta denbora plangintza. Plan hori hobetu eta zehaztu daiteke doktorego tesia egin ahala eta tutoreak eta zuzendariak babestu beharko dute. Aipatutako plana GAUR aplikaziora igo beharko da doktoregaiaren espedientean erregistratzeko.

12. artikulua.– Ebaluazioa eta jarraipena.

Urtero, doktorego programaren Batzorde Akademikoak ebaluatuko ditu ikerketa plana eta jardueren dokumentua, baita horretarako tutoreak eta zuzendariak egin beharko dituzten txostenak ere. Ebaluazio positiboa ezinbestekoa izango da doktorego programan jarraitzeko. Ebaluazio negatiboa emanez gero, behar bezala arrazoituta, doktoregaia sei hilabete baino lehenago ebaluatu beharko da berriro, eta horretarako beste ikerketa plan bat prestatu beharko du. Berriro ebaluazio negatiboa emanez gero, doktoregaia doktorego programatik kanpo geldituko da behin betiko.

IV. KAPITULUA

DOKTOREGO TESIAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

13. artikulua.– Doktorego tesia aurkeztea.

Doktorego tesia amaitu ondoren, doktoregaiak UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari aurkeztuko dio, hark baimen dezan. Horretarako, zuzendariaren, tutorearen, doktorego programaren Batzorde Akademikoaren, eta doktoregaia atxikita dagoen sailaren baimena beharko du.

Tesia bere jakintza arloan komunikazio zientifikorako erabili ohi diren hizkuntzetan egin daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetakoren batean egin edo defendatzen ez bada, laburpen bat aurkeztu beharko da, bost orrialdekoa gutxienez, bi hizkuntza horietako batean.

Tesia hizkuntza jakin batean aurkeztu izanaren egiaztagiria lortzeko, gutxienez tesiaren % 45 hizkuntza horretan idatzita egon beharko da, bibliografia alde batera utzita.

Tesiaren bi ale aurkeztu beharko dira koadernatuta, eta beste bat formatu digitalean. Horrez gain, jardueren dokumentua ere aurkeztu beharko da, aparteko dokumentu batean.

Azalean honakoak agertuko dira, gutxienez:

- 1.– UPV/EHUren sinboloa.
- 2.– Doktorego tesiaren izenburua.
- 3.– Egilearen izena.
- 4.– Urtea.

Azalean jar daitezke, UPV/EHUren sinboloarekin batera, Master eta Doktorego Eskolako sinboloa, tesi zuzendarien izenak eta, tutorekidetzan egindako tesien kasuan, bi unibertsitateen sinboloak. Kontrazalean edo barruko aldean jar daitezke UPV/EHUkoak ez diren erakunde eta enpresenak, ez azalean, ordea. Horrela ez egiteak gordailuan uzteko epea abiatzea eragotziko du.

Hauek dira koadernatuta joango diren dokumentuak:

- 1.– Tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena doktorego tesia aurkezteko, jatorrizko sinadurekin.
- 2.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoaren baimena, arduradunaren jatorrizko sinadurekin.
- 3.– Doktoregaia atxikita dagoen sailaren baimena.
- 4.– Doktorearen graduko akta.

Doktoregaiak UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari igorriko dio aurreko dokumentazioa, UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bitartez.

14. artikulua.– Doktorego tesiko epaimahaia proposatzea.

Doktorego tesiko epaimahaia osatzeko bi aukera egongo dira: bata, bost kide titular eta hiru ordezeko egotea, eta, bestea, hiru kide titular eta hiru ordezeko egotea. Doktorego programaren Batzorde Akademikoak erabakiko du zeinen alde egin kasu bakoitzean. Bost kideko epaimahaientarako 10 doktoreko proposamena aurkeztuko da eta hiru kideko epaimahaietarako, zortzikoa.

Proposamenetan jasotako doktoreek ikerketa esperientzia egiaztatua izan beharko dute doktorego tesiaren gaien edo gai horrekin lotutako beste batean.

Doktoregaia atxikita dagoen saileko idazkaritzak, baimena eman eta 30 eguneko gehienezko epean bidali beharko dio UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari, UPV/EHUko Erregistro Orokorren bitartez, doktorego tesia epaitu behar duen epaimahaia osa dezaketen kideen proposamena (10 kidekoa edo zortzikoa), aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori doktoregaia atxikita dagoen sailak onartuta egon beharko da, doktorego tesien zuzendariei eta doktorego programaren Batzorde Akademikoari entzun ondoren. 185/1985 EDk eta 778/1998 EDk araututako doktorego programen kasuan, ez da beharrezkoa izango doktorego programaren Batzorde Akademikoaren txostena.

Ezin dira inola ere proposatu epaimahaiko kide izateko gaixotasunagatik bajaran dauden doktoreak. Epaimahairako proposatutako doktoreetako bat egoera horretan badago proposamena bidali ondoren, doktoregaia atxikita dagoen saileko zuzendariak Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, eta epaimahairako beste kide bat proposatuko du.

Proposamenean kontuan hartu beharko dira, ahal den neurrian, genero berdintasuneko irizpideak.

1.– Honako hauek proposatu ahal izango dira:

a) CNEAIk edo ikerketaren ebaluazio eta akreditaziorako pareko agentzia batek aitortutako seiurteko edo pareko tarte bat edo gehiago duten irakasleak.

b) CNEAIk jakintza arlo bakoitzerako ezarrita dituen irizpideak aintzat hartuta, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak aitortutako bost ekarpen garrantzitsu egin dituzten estatuko edo atzerriko irakasleak.

c) CNEAIk jakintza arlo bakoitzerako ezarrita dituen irizpideak aintzat hartuta, Graduondoko Batzordeak aitortutako bost ekarpen garrantzitsu egin dituzten era guztietako erakunde publiko eta pribatuetako ikertzaileak.

d) Proposa daitezke eszedentzian edo erretiroan egon eta unibertsitateko irakasleen eta ikeritzaileen kidegoetakoak diren irakasleak, baldin eta a), b) edo c) ataletako irizpideak betetzen badituzte.

e) Unibertsitateak dituzten institutu mistoetako ikertzaileak, institutu misto horiek kontratatutakoak, unibertsitatekotzat joko dira. Era berean, UPV/EHUkotzat hartuko dira UPV/EHUri atxikitako Ramón y Cajal-eko, Ikerbasque-ko, eta abarreko ikertzaileak, baita UPV/EHUko irakasle erretiratutak ere.

2.– Ezingo dira proposatu honako hauek:

a) Doktorego programaren egituraren barruan dauden ikerguneetako doktoreak.

b) Ezin izango da proposatu doktorego tesiaren zuzendaria, ezta tutorea ere, salbu eta horrela izan daitekeela jasota duten atzerriko unibertsitateekin egindako alde biko akordioen eta tutorekidetza hitzarmenen markoan aurkeztutako tesien kasuan, baldin eta doktorego tesiaren defentsa beste unibertsitatean egiten bada.

c) Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, II. tituluko III. kapituluan zehazten duenez, ezin izango dute parte hartu epaimahaian tesiaren zuzendariekin edo zuzendariekin, tutorearekin edo doktoregaiarekin laugarren maila arteko odol ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza ahaidetasuna duten

doktoreek, ezta pertsona horietakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena duten doktoreek ere.

3.– Bost kideko epaimahaietarako, 10 doktoreko proposamenak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Proposatutako kideetatik hiruk, gutxienez, epaimahaiko buru izateko baldintzak beteko dituzte, hau da, kasuan kasuko erakunde eskudunak aitortutako bi ikerketa tarte izango dituzte, gutxienez. Seiurtekoen ebaluaziorik eskatu ezin duten kideen kasuan, doktorego tesi bateko epaimahaiburu izan ahalko dira, goiko baldintza hori hitzez hitz bete ez arren, UPV/EHUko Graduondoko Batzordearen ustez egokiak diren merezimenduak egiaztatzen dituzten ikertzaileak (10 ekarpen garrantzitsu, aintzat hartuta erakunde eskudunak jakintza arlo horretarako zehaztuta dituen irizpideak).

b) Gehienez hiru kide izango dira estatuko edo atzerriko unibertsitate edo ikergune ofizial berekoak: Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilukoak eta hari lotutako ikerguneetakoak eta antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko ikerguneetakoak.

c) Nahitaez UPV/EHUko hiru pertsona proposatu beharko dira epaimahaian egoteko, eta horietatik batek, gutxienez, epaimahaiburu izateko baldintzak beteko ditu.

d) Proposatutako 10 doktoreetatik lau, gutxienez, unibertsitateko katedradunak izango dira, edo goi mailako irakaskuntza edo ikerketa erakundeei lotutako pareko figurak (ikerketa irakaslea CSICen, bertako pertsonak direnean, eta kategoria handiena atzerriko unibertsitate edo ikerguneetako pertsonak direnean). Edonola ere, behar bezala justifikatutako kasu berezietan, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak parekotzat jo ahal izango ditu arautegi honetan epaimahaiburu izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten epaimahaikideak.

e) Proposamenean ezingo dira egon 3.b) atalean zehaztutakoak ez diren erakundeetako bi kide baino gehiago.

4.– Hiru kideko epaimahaietarako, zortzi doktoreko proposamenak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Proposatutako kideetatik hiruk, gutxienez, epaimahaiko buru izateko baldintzak beteko dituzte, hau da, kasuan kasuko erakunde eskudunak aitortutako bi ikerketa tarte izango dituzte, gutxienez. Seiurtekoen ebaluaziorik eskatu ezin duten kideen kasuan, doktorego tesi bateko epaimahaiburu izan ahalko dira, goiko baldintza hori hitzez hitz bete ez arren, UPV/EHUko Graduondoko Batzordearen ustez egokiak diren merezimenduak egiaztatzen dituzten ikertzaileak (10 ekarpen garrantzitsu, aintzat hartuta erakunde eskudunak jakintza arlo horretarako zehaztuta dituen irizpideak).

b) Gehienez bi kide izango dira estatuko edo atzerriko unibertsitate edo ikergune ofizial berekoak: Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilukoak eta hari lotutako ikerguneetakoak eta antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko ikerguneetakoak.

c) Nahitaez UPV/EHUko bi pertsona proposatu beharko dira epaimahaian egoteko, eta horietatik batek, gutxienez, epaimahaiburu izateko baldintzak beteko ditu.

d) Proposatutako zortzi doktoreetatik hiru, gutxienez, unibertsitateko katedradunak izango dira, edo goi mailako irakaskuntza edo ikerketa erakundeei lotutako pareko figurak (ikerketa irakaslea CSICen, bertako pertsonak direnean, eta kategoria handiena atzerriko unibertsitate edo ikerguneetako pertsonak direnean). Edonola ere, behar bezala justifikatutako kasu berezietan, UPV/

EHUko Graduondoko Batzordeak parekotzat jo ahal izango ditu arautegi honetan epaimahaiburu izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten epaimahaikideak.

e) Proposamenean ezingo da egon 4.b) atalean zehaztutakoak ez diren erakundeetako kide bat baino gehiago.

15. artikulua.– Doktorego tesia epaitu behar duen epaimahaia izendatzea.

Bost titularrek eta hiru ordezkok osatutako epaimahaiak.

Hamar kideko proposamena kontuan hartuta, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak zortzi kidez, hau da, bost titular eta hiru ordezkoz, osatutako epaimahaia izendatuko du. Honela banatuko dira:

Zortzi kideetatik:

1.– Epaimahaiko hiru kide UPV/EHUkoak izan beharko dira; horietako bi titularrak izango dira, eta bestea ordezkoa. Bi titular horietako batek huts eginez gero, ordezkok beteko du haren lekua nahitaez.

2.– UPV/EHUko kideak kenduta (horiek hiru izango dira nahitaez: bi titularrak eta bestea ordezkoa), ezin izango dira egon estatuko edo atzerriko unibertsitate berekoak edo ikergune ofizial berekoak diren bi kide baino gehiago.

3.– 14.3.e) artikuluan aipatzen diren erakundeetako kide bi egon ahalko dira, baina horietako bat baino ezingo da epaimahaikide titularra izan.

4.– Bi kidek epaimahaiko buru izateko baldintzak bete beharko dituzte.

Epaimahaiko bost kide titularren artetik:

1.– Nazioarteko doktorego tesiak direnean, atzerriko erakundeetako bi kide soilik egon ahal izango dira epaimahaian. Estatuko doktorego tesiak direnean, atzerriko erakunde bateko kide bakar bat baino ezingo da egon epaimahaian.

Hala ere, estatuko doktorego tesien kasuan, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak atzerriko erakundeetako bi kide egotea baimendu ahalko du, jakintza arloaren berezitasunean edo garapen zientifikoan oinarritutako arrazoi objektiboak egonez gero, arautegi honetako 22. artikuluan ezarritako muga ekonomikoak alde batera utzi gabe.

2.– Bost kide titularren artean, bi gutxienez unibertsitateko irakasleak izango dira.

3.– Kide titular baten tokian ordezeko bat jartzeko beharrik egonez gero, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari eman beharko zaio horren berri, eta berak izendatuko du ordezkoa.

Hiru titularrek eta hiru ordezkok osatutako epaimahaiak.

Sei kideetatik:

1.– Epaimahaiko bi kide UPV/EHUkoak izan beharko dira; horietako bat titularra izango da, eta bestea, ordezkoa. Titularrak huts eginez gero, ordezkok beteko du haren lekua nahitaez.

2.– Bi kidek epaimahaiko buru izateko baldintzak bete beharko dituzte.

3.– Ezin izango dira egon estatuko edo atzerriko unibertsitate berekoak edo ikergune ofizial berekoak diren bi kide baino gehiago.

4.– Arautegi honetako 14.3.e) artikuluan aipatzen diren erakundeetako kide bat egon ahalko da.

Epaimahaiko hiru kide titularren artetik:

1.– Kide titularretako bat UPV/EHUkoa izango da eta, ahal dela, kide hori epaimahaiko burua edo idazkaria izango da.

2.– Epaimahaiko kide titularrak erakunde desberdinetakoak izan beharko dira.

3.– Estatuko edo nazioarteko doktorego tesiak direnean, atzerriko erakundeetako kide bat bakarrik egon ahal izango dira epaimahaian. Hala ere, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak atzerriko erakundeetako bi kide egotea baimendu ahalko du, jakintza arloaren berezitasunean edo garapen zientifikoan oinarritutako arrazoi objektiboak egonez gero, arautegi honetako 22. artikuluan ezarritako muga ekonomikoak alde batera utzi gabe.

4.– Hiru kide titularren artean, bi gutxienez izango dira unibertsitateko irakasleak.

5.– Kide titular baten tokian ordezeko bat jartzeko beharrik egonez gero, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari eman beharko zaio horren berri, eta berak izendatuko du ordezkoa.

16. artikulua.– Doktorego tesia gordailuan uztea.

1.– Behin 13. eta 14. artikuluetan aipatutako dokumentazioa UPV/EHUko Erregistro Orokorrean utzita eta doktoregaiak baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, tesia gordailuan uzteko 15 eguneko epea ezarriko da eta epe horretan alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Epearen hasiera data Idazkaritza Nagusian eta Master eta Doktorego Eskolan argitaratuko da.

2.– Doktorego tesia edozein doktoregaik aztertu ahal izango du Idazkaritza Nagusian, eta egoki jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu haren edukiari buruz. Alegazioak Erregistro Orokorrearen bitartez aurkeztuko dira UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari zuzenduta eta izaera konfidentziala izango dute. UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak tesiaren zuzendariari, doktorego programaren Batzorde Akademikoari eta doktoregaiari bidaliko die alegazioen transkripzio literala, aipatutakoek UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari alegazioez egoki iruditzen zaizkien erantzunak aurkez diezazkiten.

17. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsa baimentzea.

1.– Tesia gordailuan uzteko epea igarotakoan (16. artikuluan zehaztutako epea), UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak erabakiko du –jasotako idazkiak eta egokitzat jotzen dituen adituen-gandik bil dezakeen informazio gehigarria aztertu ondoren–, tesiaren defentsa baimentzen duen, edo, alderantziz, atzera botatzen duen. Tesiaren defentsa baimendu eta gero, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko buruak tesia epaitu behar duen epaimahaiko kide titularrak eta ordezkoak izendatuko ditu, Graduondoko Batzordearen txostenari jarraiki. Horretarako, 15 egun naturaleko epea izango du, tesia gordailuan edukitzeko epea amaitzen denetik hasita.

2.– Epaimahaia izendatu ondoren, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeko buruak epaimahaia- ren izendapena eta defentsarako baimena bidaliko dizkie epaimahaiko kide titularrei eta ordezkoei, doktorego tesiaren zuzendariari, doktorego programaren Batzorde Akademikoari, Master eta Doktorego Eskolari, doktoregaia atxikita dagoen sailari eta doktoregaiari.

3.– Doktoregaia atxikita dagoen sailak 10 egun natural izango ditu, izendapena atera den egunetik kontatzen hasita, epaimahaiko kideei helarazteko epaitu beharreko tesiaren aleak eta doktoregaiaren jardueren dokumentua, doktoregaiak egindako prestakuntza jarduerak jasotzen

dituena. Jarraipen dokumentu horrek ez du puntuazio kuantitatiborik izango, bai ordea kualitatiboa eta, ondorioz, doktorego tesiaren ebaluazioa osatzeko balioko duena.

4.– Doktoregaiak, baimen hau lortu ondoren, defentsarako matrikula egin eta dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

Ezin izango da doktorego tesia defendatu hura gordailuan uzteko epea hasten denetik 30 egun igaro arte.

18. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsarako data argitaratzea.

1.– Defentsa publikoa egiteko baimena jaso ondoren, epaimahaiko buruak, epaimahaikideei entzunda, argitara aterako ditu bi egun natural lehenago gutxienez, doktorego tesiaren defentsa egiteko data, tokia eta ordua eta idazkariak horien berri eman beharko dio UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari.

2.– Informazio hori bera doktoregaia atxikita dagoen saileko zuzendariari eta defentsa egiteko hautatuko den UPV/EHUko ikastegiko administratzaileari ere jakinaraziko zaie, behar diren administrazio izapideak egin ditzaten. Horrez gain, Master eta Doktorego Eskolari ere jakinarazi beharko zaio informazio hori.

19. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsarako matrikula.

Unibertsitateko goi hezkuntzako titulu ofizialetarako prezioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen ditu ikasturte bakoitzerako.

20. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsa eta kalifikazioa.

Doktorego tesia ekitaldi publikoan defendatu eta ebaluatuko da. Aipatutako ekitaldian doktoregaiak prestatutako ikerlana azaldu eta defendatu beharko du epaimahaikideen aurrean. Azalpenenean sartuko dira, baita ere, izandako prestalana, tesiaren edukia eta ondorioak, eta doktoregaiak berak egindako ekarpen orijinalen aipamena batez ere.

Doktorego tesiaren defentsa ekitaldia urte osoan egin daiteke, abuztuan izan ezik.

Doktorego tesiaren defentsa UPV/EHUko egoitzetan egingo da, salbu eta unibertsitateen arteko doktorego programen markoan tutorekidetzan egindako tesietan eta beste unibertsitate batzuekin elkarlanean egindako tesietan, horrela ezartzen baldin bada kasuan kasuko hitzarmenean. Behar bezala justifikatutako egoeretan, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak baimena eman ahalko du epaimahaiko kide batek bideokonferentzia bidez parte har dezan, ekitaldian bertan egon beharrik gabe. Kasu horretan, defentsa ekitaldia UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarriko duen prozedurara egokitu beharko da.

Epaimahaiko kide titularren batek arrazoi justifikatuarengatik edo agertzeko gertatutako ezintasunarengatik uko eginez gero, epaimahaiburuak ordezkotako bat jar dezake haren lekuan.

Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, epaimahaikide izendatutako bost edo hiru kiderekin baino gutxiagorekin jardun (kopuru bat edo bestea, epaimahai motaren arabera).

Defentsa ekitaldian, doktoregaia atxikita dagoen sailari bidalitako doktorego tesiaren alea izango du epaimahaiak, doktorearen graduko akta ere sartuta daukana, eta, horrez gain, koadernatu gabeko doktorearen graduko akta bat ere izango du. Defentsa bukatutakoan, akta biak sinatu beharko dituzte epaimahaiko kide guztiek eta doktoregaiak.

Epaimahaiko kideek beren iritzia agertu beharko dute aurkeztutako tesiaren gainean; egoki iruditzen zaizkien galdera eta eragozpen guztiak plazaratu ahal izango dituzte eta doktoregaiak erantzun egin beharko die. Ekitaldi publikoan egongo diren doktoreek ere azaldu ahal izango dituzte beren galderak eta eragozpenak, eta doktoregaiak erantzun egin beharko die, epaimahaiko buruak esaten duen unean eta moduan.

Doktorego tesiaren defentsa eta eztabaida amaitutakoan, epaimahaiko kide bakoitzak tesiari buruzko balorazioa egingo du idatziz.

Doktorego tesiaren defentsa bukatutakoan, epaimahaiburuak txostena egin eta doktorego tesiaren kalifikazio globala emango du honako eskala honen arabera: «ez gai», «gai», «oso ongi» eta «bikain».

Doktorego tesiari «cum laude» eman dakion proposatu ahal izango epaimahaiak, baldin eta kalifikazio globala «bikain» bada eta horren aldeko boto sekretua aho batez ematen bada. Horretarako, epaimahaiko idazkariak berak alde aurretik sinatutako boto txartel bat emango dio epaimahaikide bakoitzari (botoa emateko ezarritako ereduaren arabera), baita gutun azal bat ere. Epaimahaikide bakoitzak bere botoa adieraziko du boto txartelean eta itxitako gutun azal batean entregatuko dio epaimahaiko idazkariari. Idazkariak gutun azal guztiak sinatu eta UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari bidaliko dizkio gero botoen zenbaketa egin dadin.

Epaimahaiak aukera eman ahal izango du tesia doktoregoko sari berezietara aurkez dadin, baldin eta «cum laude» aipamena lortu badu eta horren aldeko boto sekretua aho batez ematen bada. Horretarako, epaimahaiko idazkariak berak alde aurretik sinatutako boto txartel bat emango dio epaimahaikide bakoitzari (botoa emateko ezarritako ereduaren arabera), baita gutun azal bat ere. Epaimahaikide bakoitzak bere botoa adieraziko du boto txartelean eta itxitako gutun azal batean entregatuko dio epaimahaiko idazkariari. Idazkariak gutun azal guztiak sinatu eta UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari bidaliko dizkio gero botoen zenbaketa egin dadin. Aldeko botoa aho batez eman bada, doktore eginberriak doktoregoko sari berezia eskatu ahal izango du kasuan kasuko deialdian.

Doktorego tesia hizkuntza batean baino gehiagotan defendatu izanaren egiaztatzea lortzeko, tesiaren % 45 beste hizkuntza batean egin beharko da. Hori graduko aktan jasoko da.

21. artikulua.– Doktorego tesia artxibatzea.

Doktorego tesia defendatzeko ekitaldia amaitu ondoren, epaimahaiko idazkariak dokumentu hauek bidali beharko ditu UPV/EHUko Erregistro Orokorren edozein bulegotara:

1.– Doktorego tesiaren ale bat formatu elektronikoa (CD), doktorearen graduko akta bat koadernatu gabe, doktorego tesia defendatu ondoren epaimahaiko kideek egindako txostenak, Unibertsitateen Kontseiluaren fitxa mekanizatua (Teseo) eta baimena, halakorik bada, doktorego tesiaz era librean baliatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta UPV/EHUko gordailuaren bitartez. Hori dena, bidaltze idatziarekin batera, Graduondoko Ikasketen Zerbitzura bidal dadin. Sinadurak jatorrizkoak izango dira aipatutako dokumentu horietan guztietan. Era berean, doktorego tesiaren laburpena bidali beharko da UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Zerbitzura posta elektronikoz.

2.– Behin doktorego tesiaren defentsako dokumentazio guztia jasotakoan eta arautegi honek ezarritakoaren arabera gaitu dela egiaztatutakoan, Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiari eta Master eta Doktorego Eskolari jakinaraziko dio.

3.– Formatu elektronikoan dagoen doktorego tesia Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriora bidaliko da artxibatzeke, baita UPV/EHUko Biblioteka Nagusira ere, horretarako sortutako gordailuan artxibatzeke.

4.– Erregistro Orokorrean gordailuan utzitako doktorego tesia Master eta Doktorego Eskolara igorriko da.

22. artikulua.– Dieten ordainketa.

Doktoregaia atxikita dagoen sailak, doktorego tesiaren defentsarako baimena jaso ondoren, epaimahaiko kideek leku batetik bestera joan ahal izateko izapideak hasi beharko ditu.

Beren ohiko bizitokitik beste leku batera joan behar duten epaimahaiko kideei bidaia gastuak, dietak eta bertaratzea ordainduko dizkie tesi zuzendaria edo, bestela, tutorea atxikita dagoen ikastegiko administratzaileak, beti ere UPV/EHUK zehaztutako zenbatekoen arabera.

UPV/EHUkoak diren epaimahaikideen kasuan, atxikita dauden ikastegietatik egindako joan-eto-riak baino ez zaizkie ordainduko.

Ez da ordainduko doktorego tesi bat epaitu behar duen epaimahaiko kidea ez den inork egindako gasturik.

Bost kide titularrez osatutako epaimahaietako kideek sortutako gastuetarako, gehienez ere, 1.000 euro ordainduko dira estatuko doktorego tesietan eta 1.700 euro, nazioartekoetan. Hiru kidez osatutako epaimahaietan, gehienez ere, 900 euro ordainduko dira estatuko doktorego tesietan eta 1.500 euro, nazioarteko doktorego tesietan.

V. KAPITULUA

DOKTORE TITULUA EMATEA

23. artikulua.– Doktore titulua ematea.

Doktorego tesia zein unibertsitatetan gainditu den, unibertsitate horrek emango du doktore titulua.

Doktoreek eskaera izapidetu beharko dute doktore titulua eman diezaieten. Horretarako, honakoak egin beharko dituzte:

1.– Eskaera inprimakia bete.

2.– Dagokion diru zenbatekoa ordaindu titulua emateko.

3.– NANaren edo pasaportearen fotokopia erantsi.

4.– Doktorego programan sartzeko erabilitako tituluaren fotokopia erkatu bat erantsi, edo fotokopia eta jatorrizkoa (alderatzeko), doktoregoko matrikula egiterakoan dokumentazio hori aurkeztu ez zuten doktoregaiek. Ez dute halakorik aurkeztu beharko aipatutako titulua UPV/EHUn atera duten doktoregaiek.

5.– Unibertsitateko goi hezkuntzako titulu ofizialetarako prezioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen ditu ikasturte bakoitzerako.

VI. KAPITULUA

NAZIOARTEKO DOKTOREGOA

24. artikulua.– «Nazioarteko doktorea» aipamena.

«Nazioarteko doktorea» aipamena jarri ahal izango da, doktore tituluaren atzeko aldean, ondorengo baldintzak betetzen direnean eta tituluak emateko arauak hala baimentzen dutenean:

1.– Doktore titulua lortzeko beharrezkoa den prestakuntza denboran doktoregaiak gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egina izatea, horietako bi gutxienez jarraian, estatutik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde batean edo ikergune batean, tesiaren gaiarekin zerikusi zuzena duten ikasketak edo ikerlanak egiten. «Nazioarteko doktorea» aipamena jasotzeko egin beharreko egonaldiaren barruan ez da aintzat hartuko kongresu, jardunaldi, mintegi eta halakoetara joatea. Egonaldiak eta jarduerak zuzendariaren bermea eta doktorego programaren Batzorde Akademiakoaren baimena izan beharko dute, eta doktoregaiaren jardueren dokumentuan jasoko dira.

2.– Gutxienez doktorego tesiaren % 50 (bibliografia kenduta) tesiaren jakintza arloan komunikazio zientifikorako erabili ohi diren hizkuntzetako batean idatzita egotea eta tesia hizkuntza horietako batean aurkeztea (gutxienez % 45), betiere Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntzetako batean. Arau hau ez da aplikatuko egonaldiak espainola hizkuntza duen herrialde batean egiten direnean.

3.– Estatukoak ez diren bi goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa institutu desberdinetako kide egonkor diren doktore aditu bik doktorego tesiari buruzko aldeko txostena egitea. (Informazioan adituon curriculum laburtua sartu beharko da).

4.– Estatukoa ez den goi hezkuntzako institutu edo ikergune bateko aditu bat gutxienez –doktore titulua eduki eta a) atalean aipatutako egonaldiaren arduraduna ez dena– tesia ebaluatzeko epaimahaiko kidea izatea.

25. artikulua.– Administrazio izapideak.

UPV/EHUren «nazioarteko doktorea» aipamena lortu nahi duten doktoregaiak, arautegi honetako 13. eta 14. artikuluek ezarritako agiriez gain, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte, doktoregaia atxikita dagoen sailean tesia aurkezten dutenean:

1.– Inprimaki arautua «nazioarteko doktorea» aipamena egin dakion eskatuz.

2.– Arautegi honetako 24.3 artikuluan aipatutako aldeko txostenak.

3.– Atzerriko erakundeak egindako egiaztagiria, doktoregaiak bertan gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egin duela eta egonaldi horretan doktorego tesiarekin lotutako lanak egin dituela jasotzen duena, erakundeko arduradunak ere sinatuta.

Doktoregaia atxikita dagoen sailak dokumentazio guztia bidaliko dio Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari, UPV/EHUko Graduondoko Batzordean izapidetu dadin.

Doktorego tesiaren defentsaren ondoren, epaimahaiko idazkariak epaimahaiaren osaerari eta defentsan erabilitako hizkuntza edo hizkuntzei buruzko ziurtagiria bidaliko dio Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari, UPV/EHUko Graduondoko Batzordean izapidetu dadin.

26. artikulua.– Egiaztagiri akademikoa.

«Nazioarteko doktorea» aipamena lortzeak eskubidea emango du aitoren hori lortu izanaren egiaztagiri bat eskuratzeko (egiaztagiri hori UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak emango du). Era berean, doktore tituluaren atzeko aldean «nazioarteko doktorea» aipamena jarriko da, tituluak emateko arauak baimentzen baldin badute.

VII. KAPITULUA

DOKTOREGO TESIAK TUTOREKIDETZAN

UPV/EHUk lankidetzan harreman zabalak eta askotarikoak ditu atzerriko unibertsitateekin. Horregatik, beharrezkoa da tutoretzan egindako doktorego tesiak zuzentzeko baldintza materialak zein formalak ezartzeko barne arauak ematea, prozesu horretan UPV/EHUko ikertzaileek parte hartzen dutenean, horiek doktoregaiak izan, zein ikerlanon zuzendariak izan. Era berean, ezinbestekoa da doktorego tesiak tutorekidetzan egiteko prozedura arautzea.

Tutorekidetzan araubide honen helburua da tutorekidetzan parte hartzen duten bi unibertsitateetako doktore titulua baldintza berberetan eskuratzeko; UPV/EHUko ikertaldeetan eta atzerriko beste unibertsitate batzuetako ikertaldeetan arteko lankidetzan zientifikoa sendotzea; eta bi erakunde akademikoetako doktoregaien mugikortasuna sustatzea. Tutorekidetzan unibertsitate bakar batekin baino ezingo da ezarri kasuan-kasuan, eta hitzarmen espezifiko bat sinatuko da horretarako. Dena dela, hori ez da eragozpen izango UPV/EHUren eta atzerriko beste unibertsitate batzuen artean oinarritako akordioak hartzeko, gerora horietan parte hartzen duten unibertsitateen arteko tutorekidetzan akordioak ezartzei begira.

27. artikulua.– Doktorego tesia tutorekidetzan egiteko eskaera.

Doktorego tesi bat tutorekidetzan egin nahi dutenek UPV/EHU eta atzerriko beste unibertsitate batean, idatziz eskatu beharko diote doktorego programaren Batzorde Akademikoari. Batzorde horrek, Master eta Doktorego Eskolaren onespenerekin, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari jakinarazi beharko dio, eta batzorde horrek gaiari buruz indarreko legedian jasota dauden baldintza akademikoak eta prozedurazkoak betetzen direla egiaztatzea beharko du, tutorekidetzan behin betiko baimendu baino lehen.

Ikerketa lanaren lehenengo urtean baino ezingo dira tutorekidetzan hitzarmenak baimendu, eta horien hasiera data izango da doktorego programan matrikula egin den eguna.

28. artikulua.– Doktorego tesia tutorekidetzan egiteko matrikula.

Behin doktorego tesia tutorekidetzan egingo dela onartutakoan, doktoregaiak matrikula egin beharko du UPV/EHU eta pareko izapidea beste unibertsitatean, oraindik halakorik egin ez badu; izapide hori hitzarmen espezifiko sinatzen duten bi unibertsitateetan egin beharko da, unibertsitate bakoitzean indarrean dauden arauen arabera, eta urteko matrikula tutorekidetzan hitzarmenean zehazten den unibertsitatean ordainduko da. Hitzarmena ez da sinatuko matrikula eginda egon arte.

29. artikulua.– Unibertsitateen arteko tutorekidetzan hitzarmenak.

Doktorego tesi bat tutorekidetzan egiteko, aldezturik UPV/EHUren eta beste unibertsitate baten arteko hitzarmen espezifiko bat egon beharko da.

Hitzarmen espezifikoak UPV/EHUko errektoreak edo hark eskuordetutako pertsonak sinatu beharko ditu, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak proposatuta.

Sinatutako tutorekidetza hitzarmen espezifikoaren baldintzak salbuespen kasuetan baino ezingo dira aldatu eta horretarako, UPV/EHUko Graduondoko Batzordearen baimena beharko da lehenengo, eta, gero, hitzarmenean parte hartzen duten bi unibertsitateetako errektoreen onarpena.

30. artikulua.– Tutorekidetzan egindako doktorego tesia prestatzea eta aurkeztea.

1.– UPV/EHUtik zuzendari bakar batek zuzenduko du doktorego tesia, eta beste unibertsitate-tik, berriz, hango arautegian zehazten den beste zuzendarik. Edozelan ere, zuzendaria izateko, bakoitzak bere unibertsitateak zehaztutako baldintzak bete beharko ditu. UPV/EHUUn egingo diren izapideetarako, unibertsitate bakoitzak, gehienez ere, zuzendari bat izendatuko du. Doktorego tesiko zuzendaria aldatzen bada, beste unibertsitateari jakinarazi beharko zaio aldaketa hori.

2.– Doktorego tesiari dagokion ikerketa bi unibertsitateetan egingo da hiru urteko gehienezko epean (salbuespen gisa erabaki daiteke epe hori bi urte gehiagoz luzatzea), UPV/EHUUn matrikula egin denetik kontatzen hasita. Egonaldiak bi unibertsitateetan egingo dira txandaka. Unibertsitate bakoitzean egin beharreko gutxieneko egonaldia, guztira, ez da izango inola ere bederatzi hilabete baino gutxiagokoa, eta gainerako denbora beste unibertsitatean osatu beharko da. Egonaldi hori aldi bakarrean edo epe zatikatuetan egin daiteke. Egonaldiaren epea doktorego programako matrikula jatorrizko unibertsitatean egiten denetik hasiko da zenbatzen. 99/2011 Errege Dekretuan araututa ez dauden doktorego programetako doktoregaiek ezin izango dute denbora gehiago eman doktorego tesia egiten errege dekretu horretan adierazitakoa baino.

3.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoa izango da doktorego tesiaren nondik norako jarraipena egiteko eta horiek kontrolatzeko arduraduna.

4.– Doktorego tesia bere jakintza arloan komunikazio zientifikorako erabiltzen den hizkuntzan idatzi daiteke, edo unibertsitate interesdunen hizkuntza ofizialetako batean. Edonola ere, idatzizko laburpen bat egin beharko da, bost orrialdekoa gutxienez, unibertsitate bakoitzeko hizkuntza ofizialetako batean, ez bada hizkuntza horietako bat erabili dela doktorego tesia idazteko (orduan ez da hizkuntza hori ofizialtzat daukan unibertsitateko beste hizkuntza ofizialetan laburpenik egin beharko).

5.– Doktorego tesia hura defendatuko den unibertsitateko indarreko arautegiaren arabera aurkeztu eta utziko da gordailuan, beste unibertsitatearen oniritziarekin.

6.– Egindako ikerlanaren emaitzen argitalpena, ustiapena eta babesa doktoregaia hartu duten bi unibertsitateek ziurtatuko dute, unibertsitate bakoitzaren herrialdeko prozedura espezifikoen arabera.

7.– Doktorego tesia tutorekidetzan egiten duten ikasleek «nazioarteko doktorea» aipamena eskatu ahal izango dute horretarako baldintzak betetzen badituzte.

31. artikulua.– Tutorekidetzan egindako doktorego tesiko epaimahaia.

Doktorego tesia ebaluatu behar duen epaimahaia bi unibertsitateek izendatuko dute, elkarrekin adostuta. Hura osatzerakoan tesia defendatuko den unibertsitateko arauak eta tutorekidetza hitzarmenean ezarritako irizpideak errespetatuko dira.

Doktorego tesiaren defentsa beste unibertsitatean egiten bada, unibertsitate horrek hartuko ditu bere gain antolaketa eta gastuak.

Epaimahaiaren izendapenarekin batera bi unibertsitateek egindako ziurtagiria ere beharko da, doktoregaiak unibertsitate bakoitzean zenbat denbora eman duen egiaztatzeko.

32. artikulua.– Tutorekidetzan egindako doktorego tesiaren defentsa.

Doktorego tesiak gordailuan uzteko eta defendatzeko modalitateak tesia defendatuko den unibertsitateko doktorego ikasketak gestionatzeko arauen arabera izango dira.

Doktorego tesia hitzarmenean adierazten den unibertsitatean defendatuko da. Doktoregaiak defentsa tasak ordaindu beharko ditu tesia defendatuko duen unibertsitatean eta unibertsitate horrek ordainduko ditu tesia epaitu behar duen epaimahaiko kideen gastuak.

Doktorego tesia UPV/EHUn defendatzen bada, tesia onartzeko izapideak, epaimahaiaren izendapena eta defentsa ekitaldia indarreko lege eta arauen arabera egingo dira. Era berean, beste unibertsitatean egindako egonaldien ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Defentsa beste unibertsitatean egiten bada, izapideak unibertsitate horretan indarrean dagoen legedia betez egingo dira. Hala ere, unibertsitate horrek UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari irakurketa ekitaldiaren ziurtagiri ofizial bat bidaliko dio, unibertsitate horrek berak legeztatua, eta bertan jaso dira, gutxienez, zein izan den defentsa eguna, lortutako kalifikazioa, epaimahaia eta tesiaren bi ale (bat euskarri elektronikoan).

33. artikulua.– Tutorekidetzan egindako doktoregoko titulua ematea.

Doktorego tesia gainditutakoan, tutorekidetzan parte hartu duten unibertsitateetan eskatu ahal izango du doktoregaiak titulua, betiere indarrean dituzten arautegiekin eta kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako baldintzekin bat etorrita. Unibertsitateko titulu ofizialak emateko arautegiak aukera ematen duen neurrian, doktore titularen atzeko aldean aipamen hau sartuko da: «Tutorekidetza-(e)ko Unibertsitatearekin».

VIII. KAPITULUA.

DOKTOREGOKO SARI BEREZIAK

34. artikulua.– Doktoregoko sari bereziak.

1.– Unibertsitateak doktoregoko sari berezi bat emango du, ikasturte bakoitzean, irakurritako 10 tesiko edo 10 tesitik beherako multzo bakoitzeko, ondoren aipatzen diren arloetako bakoitzean: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak eta Arteak eta Giza Zientziak.

2.– Ikasturte bakoitzean bi ikasturte lehenagoko sari bereziak emango dira. Horretarako, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak behar den deialdia egingo du eta horren berri emango zaie UPV/EHUko sail eta institutuei. Halaber, deialdiaren berri emango zaie doktorego sarietarako proposatutako doktoreei, baldin eta horien tesiak epaitu zituzten epaimahaiek botazio sekretuz adostu bazuten doktorego sari berezia eska zezaketela.

3.– Sari hori eskuratzeko aukera izateko, doktoregaiak UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari bidali beharko diote eskaera, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera, batzordeak ikasturte bakoitzerako ezartzen duen epean. Horretarako, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Doktorego tesia artikuluko honetako 2. puntuan ezarritako ikasturtean defendatua izatea.

b) Doktorego tesia epaitu zuen epaimahaiak horrela erabaki izana, eta «cum laude» aipamena aho batez lortu izana.

c) Defendatutako tesiaren ondorioz, nazioartean izen handiko aldizkari batean argitalpen bat gutxienez onartua izatea, edo patente bat gutxienez aurkeztua izatea.

4.– Lehen puntuan adierazitako arloetarako, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak epaimahai bana izendatuko du, ikasturte bakoitzerako ezartzen duen epean. Epaimahaia unibertsitateko jakintza arlo desberdinetako hiru irakasle doktorek osatuko dute. Ezin izango dira epaimahai horietako kideak izan aurkezten diren tesien zuzendariak.

5.– Aipatutako epaimahaiek jasotako eskaerak aztertuko dituzte, eta sari horretara aurkezten diren doktoregaiei behar adinako informazioa eskatu ahal izango diete. Kanpoko epaileak ere eskatu ahal izango dituzte eta UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari helaraziko dizkiete beren proposamenak. Epaimahaien aukera bat izan daiteke sariak ez ematea.

6.– UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak sari bereziak eman daitezela onartuko du, lehenik aurreko paragrafoan aipatutako epaimahaiek egindako doktoregoko sari bereziak emateko proposamenak ikusita.

7.– Doktoregoko sari bereziak jasotzen dituzten doktoreei, tesia 185/1985 eta 778/1998 errege dekretuek araututako doktorego programen barruan egonez gero, doktore titulua eskuratzeko ordaindutako dirua itzuliko zaie. Doktoreak doktore titulu ofiziala jaso badu, itzuli egin beharko du sari bereziaren aipamena jasotzen duen titulu berri bat egin diezaioten, betiere tituluak emateko arauak halakorik baimentzen badute.

IX. KAPITULUA

JABETZA INTELEKTUALA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

35. artikulua.– Jabetza intelektual.

Indarreko legediarekin bat etorrira, arlo honetako baldintzak alde interesdunek sinatutako konpromiso dokumentuan jasoko dira.

36. artikulua.– Konfidentzialtasuna.

Indarreko legediarekin bat etorrira, arlo honetako baldintzak alde interesdunek sinatutako konpromiso dokumentuan jasoko dira.

X. KAPITULUA

EUSKARAKO C2 TITULUA EGIAZTATZETIK SALBUESTEKO ZIURTAGIRIA

37. artikulua.– Euskarako C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egotea.

Doktorego tesi batek euskarako C2 titulua egiaztatzetik salbuetsita egoteko eskubidea emateko:

– doktorego tesiaren % 75 euskaraz idatzita egon beharko da eta nazioarteko tesia bada, aldiz, % 50.

– defentsaren % 45 euskaraz egin beharko da eta hori graduko aktan jaso beharko da.

Euskarako C2 titulua egiaztatetik salbuetsita egon nahi duten doktoregaiak eskaera egin beharko dute doktorego tesia gordailuan uzten duten unean.

Salbuespen hori eskatzeko baldintzak, baita salbuespenaren ziurtagiria emateko ebaluazio irizpideak ere, euskararen arloko eskumenak dituen errektoreordetzak ezarriko ditu.

Euskarako C2 titulua egiaztatetik salbuetsita egoteko baldintzak betetzen dituzten doktorego tesien kasuan, euskararen arloko eskumenak dituen errektoreordetzak beharrezkoak diren itzulpen baliabideak bermatuko ditu epaimahaiko kide guztiek doktoregaiaren aurkezpen publikoa uler dezaten, gerora balioetsi ahal izateko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arautegi hau indarrean sartu baino lehen doktorego tesiak tutorekidetzan egiteko sinatutako hitzarmenak arautegi berrira egokituko dira doktore titulua egiteari dagokionez.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Eskumena ematen zaio doktoregoko ikasketen gaietarako errektoreorde arduradunari arautegi hau aplikatzean sor daitezkeen zalantzak interpretatu eta ebatz ditzan, bai eta arautegi hau garatzen duten arau osagarriak eman ditzan ere.

2.– UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak onartu egingo ditu, doktoregoko ikasketen gaietarako errektoreorde arduradunak proposatuta, gestio prozesuan doktorego programen kalitatea bermatuko duten prozedurak. Era berean, beharrezkotzat jotzen dituen xedapen administratibo eta akademiko guztiak emango ditu.

3.– Doktoregoko ikasketen gaietarako errektoreorde arduradunak eta bera buru duen UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak doktoregoko ikasketak gestionatzeko prozedura eta egutegia ezarriko dituzte, eta unibertsitatearen webgunean argitaratuko dituzte.

4.– Arautegi honetan eta bera garatzen dutenetan zehaztuta ez dagoen guztirako indarrean dagoen legeriari jarraituko zaio.

5.– Arautegi hau EHAAn argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira arautegi honekin bat ez datozen gainerako xedapen guztiak.